

## **BILBOKO UDALAK OSTALARIEK TERRAZAK IPINTZEKO EDO ZABALTZEKO BAIMEN BERRIAK ESKATZEKO EPEA IREKI DU**

- Udalak ezohiko eta aldi baterako neurriak hartu ditu COVID-19 birusaren ondorioz sektoreak bizi duen egoera zaila arintzeko.
- Terraza eskatu ahal izango dute beharrezkotzat jotzen duten ostalaritza-establezimendu guztiek, baita aurretik ukatu izan zaienak edo Aste Nagusian bakarrik daukatenak ere.
- Eskabideak banan-banan aztertuko dira eta aurkeztu ahal izango dira Espazio Publikoaren Zuzendaritzaren udal-postan eta Bizkaiko Ostalaritza Elkartearen postan. Baita Bilbao Dendak eta BilbaoCentro elkarteen bidez ere.

*(Bilbon, maiatzaren 11n).* - **Bilboko Udalak gaur ireki du Uriko ostalariak terrazak egiteko edo zabaltzeko baimen berriak eskatzeko epea.** Aukera hori Udalak hartutako ezohiko eta aldi baterako neurrien barruan dago, sektoreak COVID-19ren ondorioz bizi duen egoera zaila arintzen saiatzeko.

**Terraza eskatu ahal izango dute beharrezkotzak jotzen duten ostalaritza-establezimendu guztiek**, baita aurretik ukatu izan zaienak edo Aste Nagusian bakarrik daukatenak ere. Eskabide hauek 2. Fasetik aurrera baimenduko dira.

Aurkeztutako **eskabideak banan-banan aztertuko dira, eta behin-behineko irtenbide partikularrak emango zaizkie**, inguruneko baldintzak kontuan hartuta, hala nola aparkalekuak lekuz aldatzea, oinezkoen ibilbide alternatiboak...

Eskabideak zuzenean aurkeztu ahal izango dira Espazio Publikoaren Zuzendaritzaren udal-postan ([espaciopublico.up@bilbao.eus](mailto:espaciopublico.up@bilbao.eus)), bai eta Bizkaiko Ostalaritza Elkartearen postan ere ([terrazasbilbao@asociacionhosteleria.com](mailto:terrazasbilbao@asociacionhosteleria.com)). Era berean, eskabideak Bilbao Dendak ([info@bilbaodendak.eus](mailto:info@bilbaodendak.eus)) eta BilbaoCentro ([tecnico@bilbaocentro.com](mailto:tecnico@bilbaocentro.com)) bidez izapidetu ahal izango dira.

## EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO ABRE EL PLAZO PARA QUE LOS HOSTELEROS SOLICITEN NUEVAS AUTORIZACIONES DE TERRAZAS O AMPLIACIONES DE LAS MISMAS

- El Consistorio ha adoptado una batería de medidas extraordinarias, temporales y transitorias para aliviar la complicada situación que vive el sector a consecuencia del COVID-19.
- Podrán solicitar terraza todos aquellos establecimientos hosteleros a los que se les hubiera denegado anteriormente o los que únicamente disponen de ella en Aste Nagusia.
- Las solicitudes, que se analizarán de forma individual, podrán presentarse a través del correo municipal de la Dirección de Espacio Público o del de la Asociación de Hostelería de Bizkaia, así como a través de Bilbao Dendak y BilbaoCentro.

*(Bilbao, 11 de mayo de 2020).*- El Ayuntamiento de Bilbao ha abierto hoy el plazo para que los hosteleros de la Villa soliciten nuevas autorizaciones de terrazas o ampliaciones de las mismas. Una posibilidad contemplada dentro de las **medidas extraordinarias, temporales y transitorias** adoptadas por el Consistorio para tratar de aliviar la complicada situación que vive el sector a consecuencia del COVID-19.

Podrán solicitar ampliaciones o nuevas terrazas, que serán **autorizadas a partir de la Fase 2**, todos aquellos establecimientos que lo consideren necesario; incluso aquellos a los que se les hubiera denegado anteriormente, o los que únicamente disponen de ella en Aste Nagusia.

Las solicitudes presentadas **se analizarán individualmente y se adoptarán las soluciones particulares pertinentes de forma provisional** atendiendo a las condiciones del entorno, tales como traslado de plazas de aparcamiento, itinerarios peatonales alternativos...

Para realizar dicha solicitud deberán cumplimentar el modelo correspondiente y presentarlo por correo electrónico a la Dirección de Espacio Público del Ayuntamiento de Bilbao ([espaciopublico.up@bilbao.eus](mailto:espaciopublico.up@bilbao.eus)) o a la de la Asociación de Hostelería de Bizkaia ([terrazasbilbao@asociacionhosteleria.com](mailto:terrazasbilbao@asociacionhosteleria.com)). Asimismo podrá tramitarse a través de Bilbao Dendak ([info@bilbaodendak.eus](mailto:info@bilbaodendak.eus)) y BilbaoCentro ([tecnico@bilbaocentro.com](mailto:tecnico@bilbaocentro.com)).

